

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2021eko uztailaren 12tik 16rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia


uroguneko KPIaren gorakada geldotu egin zen ekainean, espero zen moduan, eta EBZren % 2ko buruaren azpitik kokatu zen. Eurostatek eskainitako irakurketaren arabera, urte arteko inflazio-tasa % 1,9ra aldu zen, aurreko hilean baino hamarren bat gutxiago. Osagaiei begira, ekainean, energiaren prezioa % 5 igo zen, elikagai freskoak % 0,3 merkatu ziren, ondasun industrial ez-energetikoak % 1,2 igo ziren eta bitzuak % 0,7 hazi ziren. Energiaren prezioa kanpoan utzita, tasa % 0,8an kokatu zen, eta azpiko inflazioa % 0,9ra jaitsi zen, aurreko hileko % 1etik.

Adierazlearen azalpena

Plaza hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten gaitarrikoko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" anarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat inditu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia


rostaten arabera, Euroguneko maiatzeko industria-ekoizpenak % 1 egin zuen behera apirilarekin alderatuta, hamarren soilik jaitea espero zenean. Izan ere, adierazlea % 0,6 igo baitzen apirilean. 2020ko maiatzari jokionez, industria-ekoizpena % 20,5 hazi zen. Industria-sektoreei begira eta apirilarekin alderatuta, itsumo-ondasun ez-iraunkorren (% 2,3) eta energiaren (% 1,9) ekoizpenak behera egin zuen joan den iatzean. Inbertsio-ondasunen (% 1,6) eta bitarteko ondasunen (% 0,2) ekoizpena ere murriztu egin zen. Intrak aldean, kontsumo-ondasun iraunkorren ekoizpena % 1,6 hazi zen.

Adierazlearen azalpena

ustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo iten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz iten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen in jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: KPI



Datuaren analisia


lak gora egin zuen berriro ekainean, eta % 5,4an kokatu zen (maximoa 2008tik); azpikoa (energia eta :agai freskoak kanpoan utzita), berriz, % 4,5era iritsi zen, maximoa 1991tik. Hileko datuei begira, hazkundera 0,9koa izan zen, hileko igoerarik handiena 2008ko ekainetik. Datuak espero baino askoz altuagoak izan n; izan ere, merkatuak uste zuen urte arteko inflazioaren datua % 4,9raino apalduko zela (% 5 maitzeman), hileko KPIa % 0,4 haziko zela. Bigarren eskuko ibilgailuen prezioen gorakada handiak (% 10,5) azaldu n bilakaera hori. Aldi berean, energiaren (% 1,5) eta elikagaien kostuak (% 0,8) gora egin zuten. KPIaren akada hornigaiaren kateetako (txip erdieroaleak, lehengaiak...) botila-lepoen isla da, ondasun batzuen asia eta beste hainbatzen prezioen igoera nabarmena eragiten ari direnak. Gainera, oraingoz, energia oso rantzitsua izaten ari da KPI orokorraren oinarri efektuan; izan ere, petrolioia minimo historikoetara jaitsi tzen 2020ko apirilean eta maitzeman, eta 2021ean prezioak lehengoratu egin dira, aldakuntza-tasa diekin. Orain itxaron egin behar da aro berri baten hasiera edo inflazioaren aldi baterako gorakada den iteko, bankari zentral gehienek dioten bezala.

Adierazlearen azalpena

Plaza hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasun jiltzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du oduktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, unekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO KONFIANTZA



Datuaren analisia


Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantzak behera egin du uztailean, 85,5 puntutik 80,8 puntura, azken bost hiletako mailarik baxuena, eta analistek aho batez espero zutenaren azpitik kokatu da, rakada bat iragarri ostean. Beherakada hori estatubatuarrek susperraldi ekonomikoagatik zuten kezka dorio izan da, inflazio altu eta gero eta handiagoaren aurrean, Erreserba Federalak joera hedakorra antendu arren.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur ungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu jarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, zkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

XINA: BPGd



Datuaren analisisia

ko epe berarekin alderatuta, BPGd-ak % 7,9ko hazkundera izan zuen 2021eko bigarren hiruhilekoan, eta, raz, dezelerazio handia izan zuen urteko lehenengo hiru hilabeteetan marka guztiak hautsi zituen % 18,3ko e arteko hazkunderaren aldean. Datua analistek espero zutena baino pixka bat beherago dago soilik, % 8 juruko hazkundera aurreikusi baitzuten. Txinak, ordea, % 1,3ko hiruhileko hazkundera izan zuen, 2021eko arrila eta martxoa bitartean lortutako % 0,6ko hedapenaren ondoren, eta % 2,6koa 2020ko urria eta endua bitartean. Bada, 2021eko lehenengo sei hilabeteetan, Txinako BPGd-a % 12,7ko erritmoan hazi zen. ktorea, urteko lehenengo seihilekoan, Txinako ekonomiaren lehen sektoreak urte arteko % 7,8ko zkundera izan zuen, eta batez besteko hazkundera % 4,3koa izan da azken bi urteetan; industriak, berriz, e arteko % 14,8 egin zuen gora, eta batez bestekoa % 6,1ekoa izan da azken bi urteetan. Zerbitzuen ktorea, bestalde, % 11,8 hazi zen 2021eko lehen seihilekoan, eta batez besteko hedapena % 4,9koa izan azken bi urteetan. Estatistiken Bulego Nazionalaren hitzetan, urtea hasi zenetik, “ekonomia nazionala zkunde irmo eta iraunkorraren inertziaren lekuko izan zen”, nahiz eta lurralde nazionalako zein nazioarteko oera “zaila eta aldakorra” den oraindik.

Adierazlearen azalpena

statistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena a hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen zken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. erbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalan ekoiztitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen bla atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: BOJ



Datuaren analisia

aponiako Bankuak (BoJ) bi hamarren murriztu ditu urte honetarako BPGd-aren hazkunde aurreikuspenak, duera % 3,8ko erritmoan haziko dela aurreikusten baitu, apirilean kalkulaturako % 4aren aldean. Inflazio rreikuspenak, aldiz, gorantz berrikusi ditu, % 0,1etik % 0,6ra. Hala ere, Japoniako erakunde jaulkitzaileak 2,7raino igo du hurrengo urterako BPGd-aren hazkunde aurreikuspena, prezioak urte arteko % 0,9 igoko itira, lehenago aurreikusitako hamarren bat gehiago. 2023rako iragarpenei dagokienez, erakundeak zkunde erritmoa % 1,3koa izango dela aurreikusi du, eta prezioen igoera % 1ekoa.

stalde, Japoniako Bankuaren Diru Politikako Batzordeak gehiengo argiz erabaki zuen bere diru-politikari stea, aldeko zortzi botorekin eta kontrako boto bakarrarekin. Erakundeak, bestalde, klima-aldaketaren ntrako inbertsioak bultzatzeko fondo bat merkatu zuela gogorarazi zuen. Bada, fondo horren bidez funtsak iaten dizkie finantza-erakundeei, ingurumen-arazoei aurre egiteko inbertsioak edo maileguak egin ditzaten.

Adierazlearen azalpena

aponiako Banku Zentrala da BoJ. Banku-sistema osoa kontrolatzen du, nahiz eta herrialde dustrializatuetakoko banku zentral gehienek baino autonomia txikiagoa izan. Hauek dira euren helburuetako atzuk: Horra bankuaren zenbait helburu: diru-papera jaulkitzea eta kudeatzea; diru-politika egitea; Altxor ublikoko baloreekin eta Administrazioarekin loturiko jarduerak; datuak biltzea, azterketa ekonomikoak eta erketa jarduerak. Japoniako Bankuak ekonomia nazionalaren garapenean lagundu nahi du bere diru- litikarekin, prezioen egonkortasuna bermatuz.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia

maiatzeko industria-ekoizpenaren behin betiko datuak $-6,5\%$ beherakada bat erakutsi zuen aurreko arekin alderatuta, hasieran aurreikusitako $-5,9\%$ ko jaitsieraren gainetik. Hala, maiatzeko hazkundera $\%$ 3ra lehengoratu zen. Beherakada handiena izan zuten industriak motordun ibilgailuak izan ziren, makinaren ekoizpena atzetik zutela. Aitzitik, nabarmentzekoa da garraio-makinaren (motordun ibilgailuena izan ezik) eta produktu kimiko organiko eta ez-organikoen fabrikazioak izan zuten gorakada. Urte arteko datuei begira, oinarri erlatiboak industria-ekoizpenaren hazkundera $\%$ 21,1era bultzatu zuen, hasierako kalkulua baino 0,9 pp txiango. Bilakaera hori gertatu zen unean bidalketak $\%$ 5,5 murriztu ziren apirilarekin alderatuta, eta urte arteko $\%$ 21,5 hazi ziren. Inbentarioak, aldiz, $\%$ 1,1 murriztu ziren hilean eta $\%$ 8,7 2020ko maiatzarekin alderatuta. Horrez gain, instalatutako gaitasunaren erabilera-tasa $\%$ 6,8 murriztu zen maiatzean (aurreko $\%$ 7,5aren aldean).

Adierazlearen azalpena

industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzoaren ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruzko informazioa ematen duen erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen ari den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisisa egiteko.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea
07/19	Eurogunea	Hileko eraikuntzaren ekoizpena
07/20	Japonia	Urte arteko KPIa
07/20	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak
07/20	Estatu Batuak	Eraikitzeke baimenak
07/20	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak
07/21	Japonia	Balantza komertziala
07/22	Frantzia	Enpresen konfiantza
07/22	Eurogunea	EBZren birfinantzaketa mota nagusia
07/22	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala
07/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak
07/22	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza
07/22	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta
07/22	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta
07/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn
07/23	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK
07/23	Erresuma Batua	MoM xehek. salmentak autoen erregaiak barne
07/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa
07/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI
07/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia
07/23	Alemania	Alemaniako Markit/BME fabrikazioaren PMIa
07/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI
07/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI
07/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa
07/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI
07/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea
07/23	Erresuma Batua	Markit, RU SAREN PMI fabrikazioa
07/23	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI
07/23	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI
07/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI
07/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI
07/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB

ASTE HONETAN MERKATUETAN

RENTA ALDAKORRA

Jan astean, Estatu Batuetako eta Europako burtsek galerak izan zituen. Asian, aldiz, burtsek pixka bat gora egin zuten. FEDeko sidentearen diskurtsoa lasaia izan bazen ere, kontrolik gabeko inflazio en beldurrak eta koronabirusaren delta aldaerak eragindako satzeen gorakadaren aurrean ezarritako blokeo berriak ekonomia are iaigo motelduko delako beldurra piztu dute, inbertitzaileen aldarrean gina izan zuena. Erreserba Federaleko presidentek joan den azkenean berretsi zuenez, Estatu Batuetako susperraldi ekonomikoa da oraindik tapering-a hasteko adina sendoa. Hala ere, eztabaida rek ez du etenik izango hurrengo hilabeteetan. Halaber, datozen beteetan prezio inflazionistak apaldu egingo direla azpimarratu zuen, "laguntza sendo" bat agindu zuen, baita erakundearen pizgarri siboaren murrizketa oraindik urrun dagoela adierazi ere. Nolanahi ere, wellen hitzek ez zuten lortu inflazioaren arloan inbertitzaileak guztiz aitzea, KPIa argitaratu ostean batez ere. Izan ere, datu horrek ezustean rapatu zituen analistak, behera egingo zuela espero baitzuten. Aitzitik, 18ko maximoetara gora igo zen, eta, ondorioz, merkatuek profil entsiboagoa hartu zuten, Banku Zentralen etorkizuneko jarduerekin katuta. Makro inguruan, Euroguneko KPIak AEBetan baino datu ilagoa erakutsi zuen, eta industria-ekoizpenak espero baino gehiago n zuen behera, hala Europan nola AEBetan eta Japonian. Japoniako rkuaren bilera ere egin zen astean, eta urte honetarako hazkunde reikuspenak murriztu zituen, COVID-19aren berragartzeen ondorioz. aber, bigarren hiruhilekoko enpresen emaitzak argitaratzen hasi ziren an, eta datua adierazgarria ez bada ere, ezagutzera eman ziren aitzen % 90ek aurreikuspenak hautsi zituzten, baina hoztasunez jasot in, eta ez zuten ia eraginik izan burtsetan.

RENTA FINKOIA:

stuinguru horretan, non arrisku handiagoa duten aktiboen salmentak gusitu ziren, bonu subiranoen eskariak gora egin zuen, eta, beraz, rien errentagarritasunak behera egin zuen Atlantikoaren bi aldeetan. inda-ak -6 op egin zituen behera, -% 0,35eraino, hiru hiletako nimoetaraino, eta bere homologo estatubatuarrak -7 op, % 1,29raino. inera, Powellen mezuak lagungarri izan ziren, diru-politika aldatu rretik susperraldi sendoagoa izan arte itxarotea komeni zela adierazi elako, besteak beste. Europan, Alemaniarekiko diferentzialak nahiko onkor mantendu ziren, eta kredituak bere spread-ak apur bat handitu uen.

BISAK / LEHENGAIK:

disen merkatuan, inbertitzaileen profil defentsiboagoak dolarrari rside egin zion, eta, mugimendu azpimarragarriak izan ez arren, larra irabazi zuen euroaren aurrean. Yena ere babes-aktibo izan zen, a bere balioa handitu zuen gainerako dibisen aurrean. Lehengaietan, trolioaren prezioa -% 3,21 jaitsi zen, hazkunde aurreikuspen txikiagoen rrean. AEBetan, erregai-eskariaren irakurketa baxuagoa izan genuen, a jakin genuen Txinako petrolio gordinaren inportazioak behera egin ela lehen seihilekoan, aurreko urtearekin alderatuta. Gainera, LPEE+ deko ekoizle nagusien arteko konpromiso-akordioaren arabera, dukzioaren murrizketak are gehiago txikituko dira oraindik. Txostena in den egunean, badakigu aho batez adostu dutela 2022. urtearen iaierara arte luzatzea ekoizpen-murrizketaren oinarritzko akordioa, torren urtean pixkanaka kentzen joateko.

INDIZEAK	2021/07/16	Aldaketa Ald 2021 Astean	
IBEX	8.506,20	-% 3,08	% 5,36
EUROSTOXX 50	4.035,77	-% 0,79	% 13,60
ALEMANIA	15.540,31	-% 0,94	% 13,28
INGALATERRA	7.008,09	-% 1,60	% 8,48
FRANTZIA	6.460,08	-% 1,06	% 16,37
ITALIA	27.206,05	-% 1,07	% 12,41
S&P 500	4.327,16	-% 0,97	% 15,20
DOW JONES	34.687,85	-% 0,52	% 13,33
NASDAQ 100	14.681,38	-% 0,98	% 13,91
NIKKEI 225	28.003,08	% 0,22	% 2,04
SHANGHAI	3.539,30	% 0,43	% 1,91
MSCI WORLD	3.024,66	-% 0,93	% 12,44
MSCI GORAKORRAK	1.340,08	% 1,66	% 3,78

Gobernuen tasak	2021/07/16	Aldaketa Ald 2021 Astean	
2 urte			
ALEMANIA	-0,68	-1	2
ESPAINIA	-0,53	-2	9
AEB	0,22	1	10
5 urte			
ALEMANIA	-0,64	-4	10
ESPAINIA	-0,33	-5	6
10 urte			
ALEMANIA	-0,35	-6	22
ESPAINIA	0,29	-7	24
AEB	1,29	-7	38
Kreditu-spreada (op)	2021/07/16	Aldaketa Ald 2021 Astean	
ITRX EUROPE (5A)	47,60	1	0
ITRX EUR XOVER (5A)	237,90	4	-3

Dibisak	2021/07/16	Aldaketa Ald 2021 Astean	
\$/€	1,1806	-% 0,59	-% 3,36
Yena/€	129,95	-% 0,36	% 2,70
gpb/€	0,86	% 0,15	-% 4,23

Lehengaiak	2021/07/16	Aldaketa Ald 2021 Astean	
BRENT	73,79	-% 3,21	% 44,21
URREA	1.812,05	% 0,21	-% 4,55

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.